



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-02-09

BILERA ZENBAKIA:

ORDUA ETA LEKUA: 19:00etan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: 7 neska eta 2 mutil

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. ENERGIA GASTUAREN NEURGAILUA

Laguntza ekonomikoa dutenei edo behar ekonomiko bereziak dituztenei eskaintzeko zerbitzua aurkeztu digu herritar batek. Neurgailu honen bidez, etxeko energia gastua kalkulatu eta dirurik ez galtzeko hobekien datorkizun kontratua orientatzen dizu. Gailua hilabetez jarriko litzateke etxean eta herritar arduradunak hilabetezko gastuaren eta erabileraren jarraipena egingo luke orduz ordu. Datu hauekin kontratu egokiena zein den orientatu ahal izango du. Interesa dutenei, jakinarazi behar zaie kontratua aldatzeak 11 euroko kostua duela.

2. DESFIBRILADOREA


Desfibriladorea ia martxan eta sarreran jarrita dago Itsasondoko Udalean. Honen ezagutza zabaltzeko eta erabilera ahalbidetzeko beste ikastaro bat antolatzea erabakitzen da lantaldean. Ikastaroan izena emateko zerrenda herrian jarriko da eta izena emateko data martxoaren 23arte irekiko da. Ikastaroa apirilean egingo da eta ikastaroa egitearekin batera, bideo bat grabatu eta web orrian zintzilikatzea proposatzen da.

3. TTIPI TTAPA EGITASMOA NOLA INDARTU ETA PARTE HARTZAILE POTENTZIALEI ESKUTITZA.

SOINKETA IKASTAROA INDARTU : Gorputzaren jarrera orekatzeko ariketak, gorputzeko atal ezberdinak lantzeko ariketak, oreka eta erreflejoak hobetzeko ariketak, antsietatea bideratzeko ikastaroa, orientazioa lantzeko ekintzak eta herri sarrerako parkea erabiltzen ikasteko irteerak.

OROIMENA SUSTATZEKO IKASTARO ETA HITZALDIAK : matematika tailerra, irakurketa erraza lantzeko tailerra (liburutegiaren erabilera sustatuz), alzheimerren inguruko hitzaldia (maiatzak 10, 18 :30etan), mahai jolasak, ipuin kontaketa eskolako haurrekin, arreta eta konzentrazioa lantzeko ikastaroa, emozioak lantzeko tailerra, memoria tailerra (maiatzak 24 eta 31, 18 :00-19 :30).

OSASUNA HOBETZEKO BALIABIDEAK : Sendabelarren onurak, Gaixotasuna



eta elikadura (Garbiñe Etxaniz, apirilak 26an), Ondo jan hobeto bizitzeko (sutondo), Koro herriko medikuarekin hitzaldiak (iktusa, loa nola berreskuratu, dueloa...), 3.adina eta tratu txarrak eta erorketa tailerra.

HERRIKO ADIN EZBERDINETAKO KIDEA HARREMANETAN, BAITA ELKARTE EZBERDINEN ARTEKO HARREMANA INDARTU ERE : Gazteek kirol astea antolatu dute apirilean eta ttipi ttapakoekin batera egingo dute ibilaldia apirilaren 12an. Gai hau herri bizitzara eramatea ere planteatu da, adin ezberdineko herritarren arteko harremana sustatzeko. Bestetik, ttipi ttapa ekimenean parte hartzen ez duten herritarrei eskutitza bidaltzea ere erabaki da.

Horretarako gizarte langileak egin duen azterketa erabiliko da. 85 urtetik gorakoak batetik eta menpekoak direnak bestetik zerrendatu dira eta hauen aukerak aztertu programan parte hartzeko (bakarrik bizi diren, laguntza profesionala duten, autonomoak diren, e.a). Gizarte Langileak prestatuko du eskutitza eta ttipi ttapan parte hartzeko aukera dutenei bidali edo euren familiekin hitz egingo du zuzenean, kasuaren arabera.

4. FILME ZIKLOA ETA DATAK

2016	IZENBURUA	HIZKUNTZA	ZUZENDARIA
Martxoak 16 19tan	Festa dezagun gaurdanik geroa (30,54min)	Dokumentala Euskaraz	Emakumezkoak
Apirilak 20 19tan	Comparar, tirar, comprar (ordu 77min)	Dokumentala Erdaraz	Emakumezkoa Cosima Dannotizer
Maiatzak 11 19tan	Cuchara, manzana, bicicleta (ordu 106min)	Filma Erdaraz	Gizonezkoa Carles Bosch
Ekainak 22 19tan	Arrakala: zirrikitu bat haitzean (75 minutu)	Dokumentala Euskaraz	
Uztailak 8 22tan	Al revés (95 minutu)	Filma erderaz	Gizonezkoa Pete Docter
Irailak 26 19tan	Uno por ciento esquizofrenia (72min)	Dokumentala Erdaraz	Ione Hernandez eta Julio Medem
Urriak 26 19tan	Egiaren hazia (27,56min) Gero hitzaldi txiki bat Sahararen aldeko elkarte batek emana, herriko saharair batek....	Dokumentala Euskaraz	Emakumezkoa Eztizen Miranda Bernabek
Azaroak 22 19tan	Amaren eskuak (91 minutu)	Filma Euskaraz	Emakumezkoa Mireia Gabilondo

Dokumental eta filme zikloa osatzerako orduan hizkuntza kontutan izan da euskara bermatuz ahal zen dokumental eta filme gehienetan baita zuzendaria emakumezkoa izatea ere. Bestetik etxeetara banatuko da filme zikloa eta datak.



5. MARTXOAK 8

Martxoak 8 ospatuz, urtero bezela afaria egingo da herrian. Afaria martxoaren 4an izango da aurten eta afal osterako monologo, antzerki edo horrelakoren bat antolatzea proposatu da ongizate lantaldean. Baginaren bakarrizketak antzezlanaz hitz egin da, Aitziber Garmendiaren eskutik eta hau lotzen saiatuko dira lantaldeko bi kide.

Erakusketaren bat antolatzeaz ere hitz egin da baita larunbatean ibilalditxo bat egiteaz ere (Larraitz-Abaltzisketa). Bestetik herriko gazteek Legorretako gazteekin batera bizikleta martxa bat egiteko proposamena luzatu da (itsasondolegorreta) eta ondoren elkarretaratzean amaitu. Proposamen hau gazte dinamizatzaileari proposatuko dio gizarte langileak.

Martxoaren 8rako bestelako ideia edo proposamenik balego lantaldeko Leire eta Marijorekin hitz egiteko geratu gara.


Azkenik ekainean mikromatxismoak lantzeko saioa egingo da.

6. HARRERA PLANA

Gizarte Langileak Itsasondoko Herrian harrera egiteko planaren proposamena eta zirriborroa aurkeztu du lantaldean. Ongizateko Lantaldeko kideak ados agertu dira proposamenarekin. Harrera egitea, herritarrak itsasondon erroldatzen direnean herrian ongi etorria egitean datza. Eurekin bilera bat prestatu eta bertan herriko zerbitzu, instalazio, ibilbide eta ohituren berri ematea. Lehenengo bilera ekainean egiteko erabakia hartu da. Horretarako gizarte langileak erroldatu berri direnentzat eskutitza prestatuko du eta harrerako langileei erroldatu berri guztiei telefonoa hartzeko egitekoa ezartzea proposatu da lantaldean. Bestetik, apirileko lantaldean harrera bilera egiteko edukiak landu eta osatuko dira.

Azkenik ongizate lantaldeko bilera martxoak 8an zenez eta egun horretan elkarretaratzea egiten denez, eguna aldatzea erabaki da martxoak 1era.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Energia gastuaren neurgailua	Gizarte Laguntzak behar dituztenei esan	Gizarte Langilea
Desfibriladorearen zerrenda/ikastaroa	Apirila	Erkuden
Ttipi ttpa eskuorria herrian eta etxeetara	Martxoa	Erkuden
Ttipi ttpa eskutitza eta kontaktua partehartzaile potentzialei	Martxoa-Apirila	Gizarte Langilea
Filme zikloa eta datak osatuz etxeetara bidali	Otsaila	Leire/Marijose



Martxoak 8 egitaraua osatu	Martxo	Leire/Marijose
Harrera plana lehenengo eskutitza	Martxo	Gizarte Langilea
Harrera plana, ongi etorri bilerarako materiala	Apirila-Maiatza	Ongizate Lantaldea

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Martxoaren 1ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Etxean bakarrik bizi direnen zerrenda (Itsaso-Koro)
- Denboraren bankua (Maidar-Haizea)
- Harrera protokoloa (Itsaso)
- Berdinbidean GFAko proposamena